

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko apirilaren 9ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena

– **Foru dekretuak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 20/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa. Onestea Arabako Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskunde prozesuan erabiliko diren baliabide materialen zehaztapena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa. Onestea hauteskunde gastuengatik dirulaguntzen aurrerakinak ematea Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu eta Batzar Nagusietarako 2019ko hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi politikoei eta hauteskunde federazio, koalizio eta elkarteei.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2020-2021 aldian laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak aldatzeari, eta energia jasangarritasun jarduerak sustatzeko dirulaguntza lerroaren 2018-2019rako deialdiari.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 238/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Foru Gobernu Kontseiluaren 2019ko apirilaren 16ko ohiko bilkura hurrengo egunean, apirilaren 17an, egiteari, eta apirilaren 23ko ohiko bilkurarako deirik ez egiteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 239/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea aldundi honek amore emateari 876/2018 zenbakiko administrazioarekiko auzi errekurtsioan, zeina EAEko Auzitegi Nagusian bideratzen ari baita amatasun prestazioa PFEZetik salbuestea dela eta.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 240/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Obra eta Zerbitzuen 2012-2015 eta 2016-2017 Foru Planetako hainbat obra amaitzeko eta hainbat agiri aurkezteko epea luzatzeari, eta baita onetsitako obrei dagokien zenbatekoa esleitzeari ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 241/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea epea luzatzeari Telefónica Móviles eta Telefónica de España SAU enpresek eratutako ABEEari, lurralde historiko honetako herrigune eta eskualde barreiatuetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko proiektuak egikaritzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 242/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Araba Garapen Agentzia SARI galerak konpentsatzeko 998.000 euroko ekarpena egiteari.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN
ETA FORU ADMINSTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 243/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea 662.000 euroko funtsaren eraketa produktibitate osagarri bat ordaintzeko, Kontseiluaren abenduaren 28ko 71/2018 Foru Dekretua aplikatuz, zeinaren bidez ezarri baitziren lurralde historiko honetako 2018ko aurrekontuen 2019rako luzapena aplikatzeko irizpideak.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 244/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespina ematea "Industria kulturalak eta sortzaileak" gastu egoerako partidaren 18/2019 konpromiso kreditua sortzeko espedienteari, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 245/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea 8/2019 kreditu gaitzeko espedientea, 12.101.706,67 eurokoa, "INDESA 2010. Maileguak amortizatzea" partida sortu berria eta "AGA: Buesa Arena handitzeko lanak" partida funtsez hornitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 246/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea 9/2019 kreditu gaitzearen espedientea, 662.000,00 eurokoa, "Produktibitatea" izeneko partida funtsez hornitzeko, produktibitate funtsa sortzeko xedeaz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 247/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea kreditua gaitzeko hainbat espediente, foru erakunde autonomoetan, foru fundazioetan eta foru sozietate publikoetan produktibitate osagarri bat ordaintzeko funts bat sortzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 248/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak eskatuta, 45/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 3.598,83 eurokoa, "Artisautza jarduera" izeneko partida funtsez hornitzeko, 2018. urteari dagozkion zenbatekoak ordaintzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 249/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespina ematea aurrekontua aldatzeko zenbait espedienteri, "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea" izeneko partida funtsez hornitzeko, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 250/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea abuztuaren 3ko 442/2018 Erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa baietsi zuen abenduaren 686/2018 Erabakian antzemandako hutsaren zuzenketa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 251/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea 2019ko laguntza lerroaren deialdia, "Arabako landa bideak onik zaintzeko "Laguntzak gauzatan" modalitatean ematen dena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 252/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea aldundi honetako Landa Bideen Erregistroan sartuta dauden landa bideen mantentze lanak egiteko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedientea, 449.998,34 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne, eta 3 hilabeteko egikaritze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 253/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespina ematea obra kontratu hau egikaritzeko berme gisa jarritako fidantza itzultzeari: "Oiongo Ureztatzaileen Elkartean (Araba) zebra muskuiluen (Dreissena polymorpha) populazioak kontrolatzeko proiektua".

Foru Gobernu Kontseiluaren 254/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespina ematea prozedura ireki bidez deialdia egiteari baso aprobetxamenduak besterentzeko jabe diren kasuan kasuko erakunde publikoekin partzuergoan dauden zenbait menditan.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 255/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea protokolo bat izenpetzeari Trenbide Azpiegituren Administratzailearekin (ADIF), trenbide pasaguneak kentzeko Abando Ind. Prieto-Casetan linea intermodaleko 160/484 kilometro puntuan, Erriberagoitiko udalerrian (Araba); eta Madril-Hendaia lineako 468/571 kilometro puntuan, Erriberabeitiko udalerrian (Araba).

Foru Gobernu Kontseiluaren 256/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onestea kudeatzeko ardua emateko hitzarmena izenpetu dadila Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionala - Diruaren Errege Etxearekin, takografo digitaleko txartelak, gidarien gaikuntzakoak, eta errepidezko garraiorako baimen eta ziurtagirien euskarri fisikoa izateko paper tinbreduna fabrikatu eta emateko.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 257/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak kudeatutako instalazioetako hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeari, 759.000 euroko zenbatekoan (BEZa barne) eta 3 urteko egikaritze epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 258/2019 Erabakia, apirilaren 9koa. Onespena ematea Vasco-Navarro ibilbide berdeko automotoreen antzinako pabiloia lehengoratu eta birgaitzeko obren proiektuari eta obra horiek prozedura ireki bidez kontratatzeari, 209.523,47 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 7 hilabeteko egikaritze epearekin.